Etorkizunean hizkuntzak irakasteko beharra izango al dugu? Itzulpen automatikoa aurrerabide handia egiten ari da, gainera daramatzagun gailuetako teknologia ere gure artean dugu, eta badirudi etorkizunean izugarritzko garapena izan lezakeela. Hala izanez gero, bilakaera horrek egundoko eragina izan dezake hizkuntzen irakaskuntzan eta eleaniztasunaren inguruko ikerketan. Gipuzkoako enpresa bateko zuzendariari behin entzun nion bezala: «Nik nahiko nukeena da Txina edo Japoniara joaten naizenean euskaraz hitz egin ahal izatea eta teknologiari esker haiek nik esaten dudana ulertzea». Laster gertatuko al da hori? Eta hala bada, etorkizunean ikasleek hizkuntzak ikasiko al dituzte?

Zaila da teknologia berriek euskararen erabilera eta ikaskuntzan izango duten eragina aurreikustea. Hala ere, garrantzitsua da aintzat hartzea akaso posible dela kode bat itzultzea, baina ez pertsona eleaniztun batek komunikatzeko erabiltzen dituen baliabide guztiak. Itzulpen automatikoa ikuspegi elebarkarrean oinarritzen da, baina guk oraindik hizkuntza eta kultura bat baino gehiago behar ditugu komunikatu ahal izateko.

Hizkera eleaniztunaren oinarria hiztun eleaniztunak dituen baliabideak dira: keinuak, intonazioa, kulturarteko gaitasuna eta beste hizkuntza batzuetatik hartutako



baliabideak, besteak beste. Jardun kreatibo eta erreala da, makinaren hizkeraz oso bestelakoa.

Har ditzagun, adibidez, negozioen munduan egiten diren nazioarteko bilerak. Elkar ezagutu bezain laster korear batek euskaldun bati zenbat urte dituen galdetzen badio, harrigarria gerta dakioke euskaldunari, baina Korean beharrezkoa da informazio hori, hitz egiterakoan zer errespetu-maila erabili behar den jakiteko. Loiuko aireportuko taberna batean euskal enpresaburu bat ikusi nuen Britainia Handiko gizon batzuei hau esaten: «Sit down sit down, what do you want to drink?». Eta ikusi nuen britainiarrak nolabait asaldatu egin zirela, ez daudelako zuzeneko hizkera horretara ohituta eta akaso ez zirelako ohartu euskalduna anfritrioi atsegina izaten saiatzen ari zela.

Kontzientzia-hartzean oinarritutako planteamendu eleaniztun eta kulturantzun bat lagungarria izan daiteke gaizki ulertuak saihesteko eta, bidez batez, negozio hobeak egiteko.

Etorkizunean gero eta arreta handiagoa jarri beharko diogu kulturarteko komunikazioari. Baina horretarako hizkuntzetan zehar ibili behar gara, urdimbre, warp, chaîne, irazkia-ri trama, weft, trame, bilbea gehituz.

Koldo Mitxelena esan zuen moduan:

«Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako».

Konklusio gisa esan nahi dut hezkuntzaren arloko eleaniztasunari buruzko ikerketa garrantzitsua eta dinamikoa dela





gure unibertsitatean. GARRANTZITSUA da, eragin zientifikoa eta errekonozimendua dituelako nazioartean. Gainera, gizartean ere eragina du, hezkuntza-sistemen hobekuntza eta lan-munduan sartzen diren profesionalen prestakuntza bultzatzen dituen neurrian. Egiten ari garen ikerketa DINAMIkoa ere bada, bilakatuz joan delako eta gaur egungo eleaniztasunaren ezaugarri berrietara egokitu delako. Dinamikoa da, bestalde, ideia berriak sortu eta gure errealtatera egokitzeaz gain, maila zientifikoan eta sozialean eleaniztasunaren ikerketan sakonduz jarraituko duten ikertzaile gazteak ditugulako gure lantaldean.

Bilbea irazkiarekin gurutzatuz aurrera egin dugu urte hauetan, baina oraindik asko dago egiteko.

2017-2018 ikasturtearen irekitze-hitzaldi hau amaitzera noa, gure unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean egiten dugun lana ezagutzera ematen lagundu dudana esperantzaz.

Eskerrik asko zuen arretagatik!





Nekane Balluerka,  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
Errektore andrearen hitzaldia

Discurso de D.<sup>a</sup> Nekane Balluerka  
Rectora Magnífica de la  
Universidad del País Vasco







Lehendakari jauna,  
Hezkuntza sailburu andrea,  
Errektoreak,  
Agintariok,  
Klaustroko kideok,  
Jaun-andreok  
Egun on.

Gaurkoa da, errektorea naizenez gero, nire lehenbiziko ikasturte hasierako ekitaldia. Izan ere, igaro den azaroan aukeratua izan nintzen eta urtarrilaren 11an hartu nuen kargua. Beraz, bederatzi hilabete luze igaro dira, baina hori denbora labur samarra da lorpenak edo emaitzak erakutsi ahal izateko.

Hala ere, denbora nahikoa izan da aurkitu dugun unibertsitatearen egoeraz jabetzeko eta gure lehen planak edo egitasmoak egituratzen hasi eta abiarazteko. Beraz, hitzaldi hau ez dut erabiliko joan den ikasturteari dagokion memoriaren aipamena edo txosten horri iruzkinak egiteko. Ez. Uste dut aukera egokia dela gaur unibertsitateak bizi duen egoeraz eta aurrean dituen erronkez gogoeta egiteko, eta gogoeta horren berri emateko bai unibertsitate erkidegoari, bai eta gaur hemen gurekin dauden gizartearen ordezkarierei ere.

UPV/EHUren funtsezko helburua euskal gizartearen zerbitzura aritzea da, eta zeregin hori berari dagokion arloan —hau da, jakintzan— burutzen du. Gure unibertsitatearen lema bi ekintza aipatzen ditu, eta ekintzok zehatz-mehatz adierazten dute zer-nolako lana egiten dugun. Alde batetik, *EMAN fruitua* esapideak jakintza sortzea eta ondare intelektuala handitzea adierazi nahi du, eta lan hori ikerketaren bidez egiten da. Bigarren ekintzari dagokionez, *ZABAL(DU) fruitua*, sortutako jakintza zabaltzearekin eta hedatzearekin lotzen dugu, eta hainbat zereginen bidez gauzatzen da: irakaskuntza, transferentzia eta dibulgazioa.

Unibertsitate bat ez dago ulertzerik fruitua eman gabe, ezta hura zabaldu gabe ere. Gizartearentzat, unibertsitatearen jarduera nagusia irakaskuntza izan da beti. Edonola ere, ikerketa irakaskuntza bezain garrantzitsua da. Hau da, helburua ez da bakarrik gizadiak jada sortu duen jakintzaren fruitua zabaltzea; horrekin batera, jakintza corpus hori handitu behar dugu. Eta, hain zuzen ere, ezin esan daiteke ikerketak irakaskuntzarekin zerikusirik ez duenik: aitzitik, ikerketak hobetu egiten du —berehala eta zuzenean— unibertsitate batek eskaintzen duen irakaskuntza.

Alde horretatik, bide onean goaz, Everis Fundazioaren hirugarren txostenak adierazten duen moduan. Izan ere, txosten horren arabera, «*enplegatzaileek ikasleen inguruan eginiko balorazioa*» irizpideari erreparatuta, UPV/EHU Estatuko 10 unibertsitate onenen artean dago jakintza adar guztietan.

Bestetik, munduko 500 unibertsitate hobereenen artean jarraitzen dugu, Shanghai rankingaren arabera, eta 50 urte baino gutxiago duten 150 unibertsitate onenen artean gaude, *Times Higher Education* aldizkariaren arabera. Duela 10 urte bakarrik,



ia «zientzia-fikzioa» iruditzen zitzaigun Shanghai rankingean munduko 500 unibertsitate onenek osatutako talde hautatuan sartzea, eta gaur egun, aldiz, gure posizioa hobetzeko helburua izan behar dugula uste dut. Hala ere, horren esanahiaz jabetzeko, ez dezagun ahantz munduan 20.000 unibertsitate daudela.

Desafio asko ditugu aurretik aipatu dudan «*eman ta zabal zazu*» bide horretan; hau da, ikertzeko, irakasteko, transferitzeko eta zabaltzeko bidean.

Formakuntzaren alorrean helburu argia dugu: gure unibertsitatean ikastea balio handiko esperientzia izatea gure ikasleentzat, lanbidean aritzeko gaitasuna emango diena, egungo eta etorkizuneko erronketarako prestatuko dituen, gaitasun tekniko, oinarri etiko-humanista eta gizarte erantzukizun sendo baten bidez. Puntu hau oso garrantzitsua iruditzen zait: alegia, unibertsitatearen helburua ez da bakarrik ikasleak etorkizunean teknikari edo profesional onak izatea; hel-

burua ere bada hiritar arduratsuak izatea.

Euskal Herriko Unibertsitateak erantzukizun handiz jokatzeko du gizaritari begira, eta arreta berezia jartzen du laguntza handiagoa behar duten ikasleen beharretan. Erantzukizun horren barnean dago, adibidez, bere instalazioen irisgarritasuna hobetzea eta pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzea, bai ezgaitasun bat duten pertsonentzat bai arrazoi bategatik edo besteagatik gurera aterpe bila etorri behar izan dutenentzat.

Berdintasunaren atal honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III Plana prestatzen ari gara, guretzat garrantzi berezia duen plana, beste urrats bat egiten lagunduko digulako gizarte igualitarioago bat eraikitzeko bidean.

Balioen alorrean, nabarmentzekoa da euskararekin eta euskal kulturarekin dugun konpromisoa. Gero eta gutxiago bada ere, oraindik badago zereginik euskarazko ira-

kaskuntza sendotzeko bidean. Alde horretatik, UPV/EHUren xedea eztaba daezina izan da beti, eta halakoa izaten jarraituko du agintaldi honetan: hau da, euskarazko irakaskuntzaren erabateko normalizazioa lortzea. Gainera, bultzada eman nahi diogu ere euskararen erabilerari, irakaskuntza arautuaren alorretik kanpo, unibertsitateari lotuta dauden bizikidetzak esparru guztietan.

Nolanahi ere, euskal kulturarekin dugun konpromisoak ez die aterik ixten inola ere munduko beste kulturei. Horra hor gure lemaren («*eman ta zabal zazu*») beste interpretazio posible bat, aurretik aipatu dudana bezain legitimoa izanik gure egitekoaren zutabeetako bat dena: gurea mundura zabaltzea, eta mundua gure etxera etortzea. Truke aberasgarria, inondik ere. Azken batean, UPV/EHUk nazioartekotzearekin duen konpromisoa ez da ikerketarekin edo balioetan oinarritutako hezkuntzarekin duena baino txikiagoa.

Nolabait esateko, euskal gizartearen zerbitzura aritzeko konpromisoa sentitzen dugun modu berean, uste dugu beharrezkoa dela ere mundu globalarekin harremanetan eta trukean aritzeko konpromisoa. Ez nuke berriro itzuli nahi idazkari nagusiak aurkeztu duen memoriara, baina utzidazue datu bat nabarmentzen: UPV/EHUko ikasleen % 22k mugikortasun programetan parte hartzen du. Datu zinez aipagarria da, kontuan izanik % 20koa dela Europar Batasunak goi mailako hezkuntzan 2020. urterako ezarrita duen helburua.

Aipamen berezia egin nahi dut, toki honetan, Jasone Cenoz irakaslearen azalpenaz. Cenoz irakaslea eta bere ikertaldea egiten ari diren lanak argi eta garbi erakusten du norberarena ikertzeak tokikoaz harago eraman eta nazioarteko interesa pizten duela. Hark argi askoan adierazi bezala, elebitasuna ez da eleaniztasunerako

oztopoa, baizik eta bultzatzaile onena. Bestalde, hark egiaztatu duenez, hurbil duguna ikertzeak, zorroztasunez eta kalitatez egiten bada, benetako garrantzia hartzen du beste testuinguru batzuetan, beste kultura batzuetan. Eskerrik asko, Cenoz irakaslea, azken urteotan egindako lanagatik eta gure aurrean azaltzeagatik.

Nazioartekotzea indartzeaz gainera, funtsezkoa da lankidetzak sendotzea inguruko egitura sozio-ekonomikoarekin. Gure ikasleek 10.000 praktikaldi egiten dituzte urtean Euskadiko enpresa edo erakundeetan, eta horrek adierazten du ikasle guztiek dutela aukera, nahi izanez gero, enplegurako baliagarriak izango zaizkien gaitasunak eskuratzeko. Dena dela, uste dut ez dela nahikoa. Jauzi kualitatibo bat egin nahi dugu irakaskuntza arloan, zenbait ekimen martxan jarritz (adibidez, txandakako prestakuntza hainbat jakintza adarretan), eta handitu egin nahi dugu inguruko enprekin eta erakundeekin lankidetzan egiten den tesi kopurua.

Ikerketari dagokionez, lanean ari gara UPV/EHUk jakintzaren sorkuntzan duen lidergoa sendotzeko, eta arreta berezia jartzen dugu ere transferentzia zereginean, lehiakortasuna eta gizarte garapena hobetzeko. Gure unibertsitateak harreman estua badu ere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sarearekin, are gehiago estutu nahi dugu harreman hori. Gure herriak salto kualitatibo bat egin behar du ikerketan, eta marko arautzaile bat behar dugu horretarako, aukera emango diguna alor honetan protagonismo handiagoa geureganatzeko. Gure talentua zaindu nahi dugu, eta nazioartean lehiatu, erreferente berriak erakartzeko, kontratazio formula malguagoen bidez. Alor honetan urrats sendoak egiten ari garen arren, uste dut oraindik ez garela iritsi Euskadi bezalako herri aurreratu batek merezi duen unibertsitate ikerketa mailara.

2016-17 ikasturtean, 9 ikerketa deialdi egin ditugu, hainbat modalitate finantzatzeko: taldeak, proiektuak, azpiegitura, doktorego aurreko eta ondoko kontratuak, ikertzaileen inkorporazioa, mugikortasuna eta ikerketaren hedakuntza. Guztira, 10 milioi euro inguruko inbertsioa. Berriasun garrantzitsuak sartu ditugu, iker-tzaile gazteei laguntzen saiatzeko, belau-naldi aldaketa egokia bermatzeari begira. Gainera, bultzada eman nahi diegu ikerketa tradizio txikia duten alorretako ikerketa egitasmoei.

Ikerketa lana jakintza adar bakoitzaren beharren arabera sendotzeko, hiru ikerketa zuzendaritza berri sortu ditugu —ikerketaren gestioko teknikarien berrantolaketa bati ekinez—, eta martxan jarri dugu informatika prozedura bat, urtero ikertaldeentzako emaitza zientifikoaren datuak gordetzeko: horri esker, etorkizun hurbil batean, eskura izango dugu taldeen I+G+Baren kalitatea monitorizatzeko sistema. Bestetik, ikerketa tresneria berria erosi dugu iker-taldeentzat, ikerketako zerbitzu nagusien bitartez.

Además de señalar los principales retos a los que estamos tratando de responder, quiero realizar una breve reflexión acerca del modelo de universidad que deseamos impulsar y de los fines que perseguimos con ese modelo. Me parece importante trasladar esta reflexión a la sociedad vasca y a los máximos representantes de la misma, porque no es una labor universitaria, o exclusivamente universitaria, la que deseo proponer. El proyecto de una universidad, más aún de una universidad pública, compromete a todas las personas que trabajamos en ella, pero también a las instituciones públicas, a las entidades sociales, empresariales y culturales, en definitiva a toda la sociedad, esa sociedad que apuesta por una universidad pero a la que ésta, a su vez, debe rendir cuentas.

En ese sentido, hablaría de corresponsabilidad. Una palabra que no debe servir para orillar nuestras propias responsabilidades en el diseño y desarrollo de la política universitaria, sino para reforzar, precisamente, nuestro compromiso con la tarea asumida. La autonomía universitaria no es una vía para rehuir el deber institucional. La autonomía universitaria exige, siempre, dar cuenta a la sociedad del uso que se ha hecho de esa autonomía: ya sea a la hora de regular su funcionamiento, ya sea a la hora de utilizar los fondos que se han recibido de la sociedad.

Al hilo de esta afirmación quiero subrayar el carácter público de nuestra universidad y el compromiso cualificado, por tanto, que nuestras instituciones y nuestro entramado social deben sentir por ella.

Pero me temo que a menudo hacemos del carácter público de nuestra institución una especie de escudo de defensa. Yo no quiero caer en eso, que me parece un error. Si nuestra sociedad tiene, con la universidad pública, una responsabilidad cualificada, también la universidad pública tiene un deber cualificado ante la sociedad y, en consecuencia, ante las instituciones que la representan. Esa responsabilidad se extiende también hacia el alumnado que acude a nuestras aulas y a las labores de investigación que, en distintos niveles, desarrollamos.

Una universidad pública debe garantizar el acceso a la misma, en condiciones de igualdad, de todas las personas. Jamás los motivos económicos deben ser un obstáculo para que una persona alcance el nivel de educación superior. A este respecto, de lo mejor que podemos afirmar de la universidad pública es que en ella no importan las condiciones en las que ingresa el alumnado, sino las condiciones en las que sale. Dicho esto, que es esencial, también me gustaría subrayar otro aspecto, un aspecto que, me



temo, no se suele mencionar ni enfatizar con la debida frecuencia.

La educación pública comporta derechos, pero comporta también obligaciones. Y si debemos mantener un celo exquisito en el respeto y el ejercicio de los derechos, debemos subrayar también, de forma clara, los deberes.

Los deberes pasan, como decía, por un uso riguroso de los fondos públicos que nos han sido confiados, pero también por el desarrollo de una investigación independiente (lo cual no impide, por supuesto, llegar a acuerdos con otros entes públicos o privados) así como el despliegue de una educación de calidad. Quería hacer una breve referencia a esta última cuestión.

La educación pública no es únicamente el derecho a estudiar, la educación pública es también el deber de estudiar, el deber de hacerlo si te has comprometido a ello y si eres consciente, como alumno o alumna, de que es el conjunto de la ciudadanía el que está invirtiendo sus recursos en tu educación.

Concebir la educación pública como un derecho pero no como un deber es tener una visión alicorta de lo público. El alumnado que ha accedido por méritos propios a la universidad pública tiene el derecho a recibir una docencia de calidad, pero tiene el deber de sentir sobre sí la máxima exigencia, y de imponerse también la máxima autoexigencia. El alumnado, nuestro alumnado, tiene derecho a un profesorado exigente, riguroso, que pida resultados de primer nivel. Lo público comporta igualdad de oportunidades, sí, pero aspira a la excelencia. El alumnado de la UPV/EHU nos exige el máximo rigor en nuestro trabajo: la universidad pública debe proporcionar todas las oportunidades, pero no debe regalar ninguna.



En definitiva, un buen alumnado, como lo es el que objetivamente nos escoge, el que escoge a la UPV/EHU como su primera opción para formarse, debe percibir que el esfuerzo que invierte en aprender le permitirá alcanzar un desarrollo personal y profesional de primer nivel.

Y esa exigencia debe trasladarse al personal docente e investigador, al personal de administración y servicios, y al colectivo de personas que somos responsables de la política universitaria en distintos niveles. Todos y todas debemos dar el máximo de nosotros mismos para que la UPV/EHU esté donde le corresponde estar: entre las mejores universidades del mundo, más allá de lo que hemos conseguido hasta ahora.

Porque el fondo de la cuestión es, sencillamente, responder a una pregunta, o a un conjunto de preguntas, más bien, pero que se inspiran en la misma inquietud: ¿Qué sociedad queremos construir? ¿Qué importancia damos a la educación superior? ¿Qué modelo social y cultural queremos legar a nuestros hijos y a nuestras hijas? En definitiva, ¿qué proyecto global hemos elegido para el futuro de nuestro país?

Debemos tener claro que la universidad que construyamos va a ser consecuencia directa de las respuestas que proporcionemos a esas preguntas y de las decisiones que adoptemos para materializarlas. Quiero subrayar esa idea. Porque la universidad no es sólo una causa sino también una consecuencia. Es ambas cosas. La uni-

Pero haciendo una proyección específica sobre el gasto en I+D ejecutado por el sector universitario (y nuevamente en porcentaje con relación al Producto Interior Bruto) las cosas cambian sensiblemente. En este caso, el gasto en Euskadi (0,34%) se asemeja al del Estado español (también del 0,34%) y queda muy por debajo del de la Unión Europea: 0,47%.



versidad también va a ser la respuesta a la pregunta que nos hayamos formulado con anterioridad; la respuesta a una apuesta financiera, política y ética; la respuesta a nuestra conducta como sociedad; el resultado lógico, palpable, de elegir un modelo de crecimiento basado en el conocimiento o bien un modelo de crecimiento basado en el ahorro de costes.

En ese sentido, puede ser ilustrativa la exposición de algunos datos extraídos de EUSTAT y de EUROSTAT. Con referencia al año 2015, el gasto total en I+D para el conjunto de la Unión Europea (UE28) suponía un 2,03% del PIB; el de Euskadi, un 1,84% y el del Estado español, un 1,22%. Es decir, el gasto en I+D de nuestra comunidad estaba cercano al de la Unión Europea y era notablemente superior al estatal.

Es decir, la inversión en I+D que realiza nuestro país es ciertamente notable, pero si ponemos el foco en la inversión en I+D dirigida específicamente a la educación superior, encontramos un margen de mejora al que podemos —y creo que debemos— aspirar. O, por decirlo de otro modo, en Euskadi son otros agentes y sectores los que ejecutan una parte importante de lo que en Europa, en cambio, sí ejecuta la universidad. Y considero que esto es algo que debería ir corrigiéndose para poder así acercarnos a los estándares europeos que nos sirven de referencia. Las consecuencias de una reorientación de este calado serían indudablemente benéficas, pero no solo para el propio sistema en el que se enmarca la actividad investigadora de la universidad, sino para la sociedad en general.

Retomando la pregunta respecto al modelo de sociedad que queremos construir, la respuesta en este ámbito no pasa, o al menos no exclusivamente, por la petición de una suficiencia financiera. Desde luego, como rectora, sería injusta con la comunidad universitaria si no manifestara la necesidad de un marco financiero suficiente y estable que garantice a la universidad un desarrollo cabal de su trabajo. Suficiencia financiera y estabilidad económica (y también jurídica) son las claves para asegurar el futuro de la universidad.

Pero dicho esto también he querido dejar claro que lo público, lejos de ser una especie de cobijo o pretexto para la medianía en los objetivos, ha de obligarnos a una exigencia constante en nuestro esfuerzo personal, porque el mismo carácter público de la institución y de los recursos que la respaldan requieren redoblar permanentemente esos niveles de compromiso con la calidad de nuestra actividad.

No tengo ninguna duda de que la UPV/EHU es una universidad responsable. Hemos sido

capaces de mantener un esfuerzo sostenido en todas las áreas a pesar de las dificultades económicas a las que nos hemos enfrentado en el periodo de crisis. Los datos en docencia, investigación y transferencia muestran que vamos avanzando en la dirección correcta pero, como he dicho anteriormente, eso no es suficiente. Una apuesta clara por el conocimiento nos permitiría avanzar al ritmo que se merece este país. Y son esos los principios que quieren guiar nuestra labor, ahora precisamente que está empezando, y cuando tenemos tres años y medio de trabajo por delante.


Estoy segura de que, con la colaboración de todos, y con la colaboración, muy en especial, de nuestro gobierno, la Universidad del País Vasco será capaz de culminar con éxito esa tarea.

Mila esker guztioi eta, ekitaldi akademikoetan esaten dudan moduan, mesez, ez ahaztu:

Eman Ta Zabal Zazue







Iñigo Urkullu,  
Lehendakari jaunaren hitzaldia

Discurso del Lehendakari,  
D. Iñigo Urkullu







Herri Agintariok,  
Errektore andrea,  
jaun andreok egunon.

Eskerrik asko Errektore andrea eta Idazkari nagusia zuen aurkezpenagatik.

Eskerrik asko, baita ere, Jasone Cenoz doktore andrea, «Hezkuntza elea-niztasuna ikertzen: irazkia eta bilbea» irakurritako hitzaldiagatik. Argi dago etorkizuneko hezkuntza adostasuna indartzeko, eleaniztasunean aurrera egin behar dugula.

Errektore andreak esan duenez, hau bere lehendabiziko ikasturte hasierako ekitaldia da eta aurrean dituen erronkez go-goeta egin du.

Emandako azalpenen oinarrian lankidetzaren ideia dago eta bat gatoz bide horrekin.

Unibertsitatea gizartea osatzen dugunon erabaki eta ekintzen ondorioa da. Erakunde publiko, eragile sozial zein kultural, elkarrekin egin behar dugu lan etor-

kizunean nahi dugun Unibertsitatea erabakitzeko eta eraikitzeko.

Gure Unibertsitatea gaztea da eta bere ibilbidean lankidetzaren izan du beti eredu.

Bide horretan, Unibertsitatea gizartearen goi-mailako prestakuntza eta ikerketa beharren inguruan hazten joan da.

Orain, honekin batera, Europako gizarteak unibertsitate sistemari eskatzen diona ere kontutan izan behar dugu:

- lankidetzaren aritzea, gizartearekin, ikasleekin eta beste eragileekin,
- ekarpena egitea, baloreetan; eta
- laguntza eskaintzea, gizartearen eraldaketan eta eboluzioan.

Hezkuntza gure Herriaren erronka nagusienetako bat da.

Euskadik unibertsitateen eta gizartearen artean lankidetzaren sustatzearen aldeko apustua egiten du, bai prestakuntzan bai ikerketa alorrean ere.

Bide honetan, Europako ereduaren lagun, Unibertsitate Plana da gure gida goi mailako hezkuntza indartuz bikaintasunean aurrera egiteko.

La Educación es un reto prioritario de nuestro País.

Asumo el concepto de corresponsabilidad que ha planteado la Rectora.

El lema de nuestro Gobierno es «auzolana» y recoge la idea de que Euskadi la construimos entre todas y todos.

Formar parte de un proyecto común supone asumir un compromiso hacia los demás. Esto nos tiene que llevar a exigir-

nos más, para que el resultado sea la excelencia.

Este mismo ejemplo lo traslado a la Universidad, un proyecto compartido.

La educación superior es una garantía para el bienestar de las personas a lo largo de su vida y, por tanto, una garantía para un desarrollo armónico de la sociedad en un contexto cada vez más exigente.

Hoy subrayo el objetivo específico de avanzar en la empleabilidad de las personas jóvenes, un reto compartido. La Universidad es una palanca de cambio para conseguirlo.

El compromiso del Gobierno es garantizar una primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes. Se trata de confiar en nuestros jóvenes, ofrecerles una primera experiencia y oportunidad laboral.

Debemos hacerlo juntos. Hemos avanzado con la firma de la «Estrategia Universidad – Empresa»; un acuerdo para impulsar el emprendimiento, la formación dual y la transición al ámbito laboral.

También aquí necesitamos corresponsabilidad.

Ikasturte berriaren hasieran gaude eta aitortu nahi dugu euskal unibertsitate publikoaren papera eta jarrera gure gizartearen goi-mailako prestakuntzaren eragile eta ikertzaile gisa.

Euskadin goi mailako prestakuntza eskaintzeko eremu propio baten oinarriak lantzen ari da Eusko Jaurlaritza.

Astearte honetan onartu dugu, Jaurlaritzaren Kontseiluan, BERC zentroentzako finantzazio deialdia. Bikaintasuna Ikertzeko

zentroak dira horiek eta bertan EHUko ikertzaile kopuru handi batek hartzen du parte. Apustu estrategiko bat da eta 42 milioi euroko inbertsioa du.

Honekin batera, «Unibertsitate – Enpresa Estrategia» sinatu berri dugu.

Eremu honetan gehitu dugu goi mailako prestakuntza duala, sustatu beharreko eredu bat delako, gazteen enplegu aukerak Unibertsitatetik ere bideratzeko.

Educación, Investigación e Innovación son claves para el avance de nuestra sociedad.

Apostamos por un camino de largo recorrido para la Universidad pública vasca.

Los proyectos universitarios de excelencia tienen y tendrán cabida en las prioridades y políticas de este Gobierno.

En este sentido, asumo la apuesta por la Innovación que plantea la Rectora. Comparto la idea de que es necesario crear conocimiento.

La Unión Europea ha vuelto a reconocer el papel de Euskadi como polo de innovación. Tenemos que hacer un esfuerzo adicional para mantener esta posición.

El Gobierno Vasco ha asumido el compromiso de incrementar cada año un 5% el presupuesto destinado a Innovación.

Este martes hemos aprobado en Consejo de Gobierno la convocatoria de financiación para los Centros BERC. Vamos a invertir 42 millones de euros en estos Centros de Excelencia en los que colabora un gran número de investigadores de esta Universidad.

Esta es una prioridad de País y un reto colectivo.





Termino con una referencia al Plan Universitario en vigor que ha pasado ya su ecuador.

Durante este curso académico nos centraremos en su evaluación y el diseño de un nuevo Plan que sirva para mejorar nuestro sistema universitario desde una perspectiva europea.

Un nuevo Plan que contribuya a avanzar en el «bien común», la eficiencia y competitivi-

dad de nuestra Universidad en el contexto internacional.

Helburu eta xede hauekin ematen diogu hasiera Ikasturte berriari, beti ere Unibertsitatearen lemaren indarra ahaztu gabe: «eman ta zabal zazu!»

Eskerrik asko!





eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea